

LANBIDE-TERAPIAKO LANPOSTUAREN PROFILA

Eskakizunak

Gutxieneko esperientzia: ez da beharrezkoa

Gutxieneko eskakizunak:

- Lanbide Terapiako Gradua/Diplomatura. Gerontologiako, Desgaitasuneko, Neuroerrehabilitazioko... prestakuntza osagarria
- Lanbide Terapeuten Elkargo Ofizialeko txartela
- Adinekoen eta desgaituen egoitzetan zein eguneko zentroetan izandako esperientzia balioetsiko da

Azalpena

Babesten Taldean, LANBIDE-TERAPEUTA bila gabiltza, egoitzetan eta eguneko zentroetan ditugun profesionalen diziiplina anitzeko taldea osatzeko.

Honako hauxe izango dute xede, medikuaren eta laguntzako arduradunaren menpean:

- Erabiltzaileei kalitateko zerbitzua eskaintzea, EBJetako mendetasuna prebenitzeko eta haien gaitasun funtzional zein motorrei eusteko edota hobetzeko, diziplinarteko lanaren esparruan jarduketa funtzionalerako programetan egindako diseinuaren, plangintzaren eta betearazpenaren bidez.

Honako hauexek izango dira haien eginkizunak:

Zentroko antolakuntzari dagokionez:

- Erabiltzaileen ezaugarriak, interesak eta lanbide-premiak ezagutzeko moduko ekintzak abian jartzea eta prozesu patologiko hasiberriak goiz antzematea.
- Osasunaren prebentziorako eta sustapenerako ekintza sistematizatuak garatzea. Horretarako, adinekoentzako planen edo programen prestaketan, ezarpenean eta ebaluazioan parte hartzea.
- Beste profesional batzuekin, proiektuen plangintzan esku hartzea, oztopo arkitektonikoak kentzeko, eguneroko bizimoduko jardueren zein beste lanbide-jarduera batzuen garapenerako prebentzio-orientazioa eskaintzeko, jarduera horiek benetan eta behar bezala betetzen direla ziurtatzeko eta gizabanakoen balizko gaitasunak ahalik eta gehien erabiltzeko.
- Adinekoak erkidegoan gizarteratzeko moduko jardueren plangintza egitea.
- Aisialdirako orientazio-jarduerak antolatzea eta koordinatzea, norberaren garapenerako aukerak berresteko eta bizitzako proiektuak sortzeko.
- Gaixotasunen tratamendu goiztiarra ezartzea, balizko eta hondar gaitasunak garatzeko eta nahasmendu handiagoen eragina murrizteko.

- Lanbide-terapiako tratamenduaren plangintza egitea, programako jarduerak eta haien ebaluazioa koordinatzeko eta ikuskatzeko.
- EBOJetan (Eguneroko Bizimoduko Oinarrizko Jardueretan) eta EBJletan (Eguneroko Bizimoduko Jarduera Instrumentaletan) trebatzeko teknikak abian jartzea.
- Ferulak, ortesiak zein laguntza teknikoak zehaztea, diseinatzea, egitea eta egokitzea eta haien erabilerarako trebakuntza ematea.
- Erabiltzaileei, familiari edo lanbidearteko komunikazioari begira egokiak diren txostenak egitea.
- Banakako Arretarako Planaren (BAP) prestaketan parte hartzea.
- Arreta Zuzeneko langileak trebatzea eta ikuskatzea transferentzien eta EBJen garapenari dagokionez.
- Lanbide-terapiako materiala eta laguntza teknikoak artatzea, inbentarioa egitea eta kontrolatzea.

Artatutako erabiltzaileei dagokienez:

- Errehabilitazio/gaikuntzarako tratamenduak eta teknikak garatzea trebetasun eta gaitasun zentzumen-motorretan, kognitiboetan, psikosozialetan eta motorretan.
- Etxe etxeko bisitaldiak egitea, lanbide-jarduna erraztu eta eguneroko egoerak (etxean erortzeko eta istripuak edukitzeko arriskua) prebenitzen dituzten egokitzapenak ebaluatzeko eta iradokitzeko.
- Erabiltzaileen familiei prestakuntza eta informazioa ematen laguntzea.

Zentroko langileei dagokienez:

- Psikologoarekin batera, oroimenaren estimulaziorako eta trebakuntzarako prebentzio-programen ezarpena eta ebaluazioa antolatzea.
- Fisioterapiako profesionalekin batera, jarduera fisikoen garapenaren inguruko argibideak eta kontraindikazioak zehaztea, behar den moduko aukeraketa egiteko eta jarduerak egokitzeke, osasun psikofisikoa eta ongizate orokorra sustatzeko.
- Diziplina anitzeko taldearekin batera, batez ere autonomia-mailarekin lotuta dagoen balioespen funtzionala egitea EBJetan (oinarrizkoetan eta instrumentaletan) eta jarduera horien garapenerako behar diren laguntza teknikoetan.
- Diziplinarteko taldearekin lan egitea. Horretarako, taldearen zerbitzu espezializatuen osagarri, euren lanpostuko berezko zereginak garatzea, kasuan kasuko zerbitzuak emateko.
- Laguntzako taldearen menpean, adinekoen eta senideen osasunerako hezkuntza-programen plangintzan, ezarpenean eta ebaluazioan parte hartzea.
- Adinekoei arazoak konpontzen laguntzeko asmoz maila instituzionaleko, maila erkideko eta etxe-mailako alternatiba berriak proposatzen dituzten programen

prestaketan, ezarpenean eta ebaluazioan parte hartzea diziplina anitzeko taldearekin.

Eskaintzen duguna

- Adinekoentzako laguntzaren sektoreko lana Bizkaian liderra den erakundean (gu ezagutzeko, Babesten Taldearen profila ikusi Linkedinen).
- Gure zentro guztiak Bizkaiko Foru Aldundiarekin daude itunduta.
- **Bizkaian ditugun zentroetan (Bilbo, Sestao, Muskiz, Basauri, Bermeo...).**

Gurekin lan egin nahi baduzu:

Bidali Zure CVa